



Alcatel


OT 223 -aren

Erabiltzailearen eskuliburua

Euskaltelek itzulitako eta
ekoiztutako eskuliburua



1 Zure telefonoa



LEDak keinu egingo du kasu hauetan:

Sarrerako deiak/
Galdutako deiak/Egiaztatu gabeko deiak

Irakurri gabeko mezuak
Telefonoa piztea/itzaltzea
Hitz egiten ari zarela



- 1 Ezkerreko funtzio-tekla
- 2 Telefonoa hartzeko tekla/
Deitzeko tekla
Dei-erregistroa
- 3 Ahots-postontzia
- 4 Sarrera ✕ ,
- 5 Eskuineko funtzio-tekla
- 6 Pizteko/
Itzaltzeko
Esekitzeko tekla

- 7 Bibragailua
- 8 Nabigazio-tekla ^[1]
Menura sartzeko/Aukera bat berresteko tekla OK
Mezuak ▲
Telefono-aurkibidea ▼
FM irratia ◀
Alarma ▶



Musika luzaroan ozen entzunda erabiltzailearen entzumenari kalte egiteko arriskua dago. Doitu zure mugikorraren bolumena arrisku gabe entzuteko. Erabili beti TCT Mobile Limited entzungailuak.

OT-223
ALCATEL
mobile phones

[1] Sare-operadorearen arabera.

1.1 Teklak



Nabigazio-tekla

Aukera bat berresteko tekla (sakatu **OK**)

Agendako "Mi favorito" aukerara sarbidea (luze sakatu)



Esekitzeko tekla

Deia egiteko

Deien erregistroa kontsultatzeko tekla (berrir deitzeko tekla) (labur sakatuta).



Telefonia pizteko/itzaltzeko tekla (luze sakatuta)

Esekitzeko

Hasierako pantailara itzultzeko



Ezkerreko funtzio-tekla



Eskuineko funtzio-tekla



Ahots-postontzia kontsultatzeko (luze sakatuta)



Editatzeko moduan:

- Labur sakatuta: hizkuntzen zerrendara sartzeko

- Luze sakatuta: zero idazteko



Editatzeko moduan:

- Labur sakatuta: idazteko metodoa aldatzeko

- Luze sakatuta: sinboloen taulara joatea



Hasierako pantailatik

- Labur sakatuta: #



















- Luze sakatuta: bibragailua aktibatzea/desaktibatzea

Editatzeko moduan:

- Labur sakatuta:  (zuriunea)

- Luze sakatuta: hitza gehitzeko

1.2 Hasierako pantailako ikonoak


-  **Bateriaren karga-maila.**
-  **Bibragailua modua:** telefonoak dar-dar egiten du, baina ez du txirrinik edo soinurik ateratzen.
-  **Entzungailuak konektatuta.**
-  **Deiak desbideratzeko aukera aktibatuta:** zure deiak desbideratu egingo dira.
-  **Iratzargailua programatuta.**
-  **Mezu berria ahots-postontzian.**
-  **FM irratia piztuta.**
-  **Erantzun gabeko deiak.**
-  **Roaming-a.**
-   **2. linea ⁽¹⁾:** aukeratutako linea zein den adierazten du.
-  Zifratu gabeko moduan bakarrik bistaratzen da, dei bat egiten denean edo SMS bat jasotzen/bidaltzen denean.
-  **Estaldura-adierazlea.**
-  **Isilik modua:** telefonoak ez du txirrinik edo soinurik ateratzen, eta ez du dar-dar egiten.
-  **Irakurri gabeko mezua.**
-  **Kronometroa aktibatuta.**
-  **Alarmaren soinua.**
-  **Bibrazioa eta alarmaren soinua.**

⁽¹⁾ Sare-operadorearen arabera.

2 Martxan jartzea.....

2.1 Abiaraztea

Atzeko tapa kentzea



Bateria sartzea eta ateratzea



SIM txartela sartzea eta ateratzea



Jarri SIM txartela txipa beherantz duela, eta sartu dagokion tokian. Egjzatu behar bezala sartuta dagoela. Txartela ateratzeko, estutu eta kanporantz atera.

2.2 Zure telefonoa piztea

Luze sakatu  tekla, telefonoa piztuta egon arte.

2.3 Telefonoa itzaltzea

Luze sakatu hasierako pantailako  tekla.

3 Deiak.....


3.1 Deitzea

Markatu telefono-zenbakia eta sakatu  tekla dei bat egiteko.

Akatsen bat eginez gero, erabili eskuineko funtzio-tekla zifrak ezabatzeko.

Esekitzeko, sakatu  tekla.

Larrialdiko deia egitea

Zure telefonoa sareko estaldura-eremuan badago, markatu larrialdi-zenbakia eta sakatu  larrialdi-dei bat egiteko, baita SIM txartelik gabe; ez duzu PIN kodea sartu beharko.

3.2 Ahots-postontzira deitzea ⁽¹⁾

Ahots-postontzira sartzeko, sakatu luze  tekla.

3.3 Deiak jasotzea

Deia jasotzean, sakatu  tekla deia hartzeko, eta, amaitzen duzunean, sakatu  tekla deia amaitzeko.

3.4 Telefonoz hitz egiten ari zarenean erabili ditzakezun funtzioak

Dei batean, zure agenda, mezu laburrak eta abar erabil ditzakezu, komunikazioa eten gabe.

⁽¹⁾ Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

4 Deien erregistroa

4.1 Deien erregistroa

Dei-zerrendara sartzeko, sakatu  tekla hasierako pantailan.

4.2 Nire zenbakiak

Idatzi edo aldatu zure telefono-zenbakia edo ahots-postontzira sartzeko zenbakia (normalean, zure SIM txartelean agertzen da), eta berretsi **OK** sakatuta.

4.3 Fakturazioa

Aukeran dauden elementuetan, erabili aukera hau: Zenbatekoa, Iraupena.

4.4 Deien ezarpenak

Funtzio honen bidez, hainbat aukeratan sar zaitezke: Deia zain, Deiak desbideratzea, Deien debekua, Erantzuteko modua eta Markartze auto.

4.5 Deien kontrola ⁽¹⁾


“**Kostuaren arabera**” eta “**Iraupenaren arabera**” ezarpenen arabera, deien zenbatekoa gainbegiratzeko edo denbora kontrolatzeko balio du menu honek.

⁽¹⁾ Sare-operadorearen arabera.

5 Agenda



5.1 Agenda kontsultatzea

Hasierako pantailatik **agendara** sartzeko, sakatu **OK** tekla eta aukeratu menuko  ikonoa.

5.2 Erregistroak sortzea

Hautatu agenda erregistroa sortzeko, sakatu "Auker." funtzio-tekla, hautatu "Artxiboa osatu" eta sakatu **OK** tekla.

6 Mezuak



6.1 Mezu bat sortzea

Menu nagusitik, hautatu "**Mezuak**" testu-mezu bat sortzeko. Mezu bat idatz dezakezu; halaber, aurrez definitutako mezu bat txerta dezakezu "**Plantila**" aukeratik. Idazten ari zaren bitartean, hautatu "**Auker.**" mezuen aukera guztietara sartzeko. Maiz bidaltzen dituzun mezuak "**Zirriborroak**" gisa gorde ahal izango dituzu.

7 Ezarpenak

Hasierako pantailatik, aukeratu menuko  ikonoa, eta, ondoren, aukeratu nahi duzun funtzioa telefonoa pertsonalizatzeko: Estalkia, Pantaila, Erlojua, Teklak, Hiztegia, Beste ezarpen batzuk...

8 Tresnak

8.1 Antolatzailea

"**Erremintak**" aukeratik menuan sartzean, hilabetekako egutegi bat aurkituko duzu zure bilera eta hitzordu garrantzitsuak jasotzeko. Gertaerak dituzten egunak kolorez agertuko dira.

8.2 Kronometroa

Kronometroa aplikazio arrunta da, denbora neurtzeko erabiltzen dena; hainbat emaitza gordetzeko eta neurketak eten eta berrabiarazteko aukera ematen du.

8.3 Alarma

Zure telefono mugikorrak iratzargailua du, eta berriz jotzeko funtzioa dauka.

8.4 Kalkulagailua

Eutsi sakatuta  # teklari koma hamartarra lortzeko.

Berretsi OK teklarekin edo ezkerreko funtzio-teklarekin.

8.5 Bihurgailua

Unitate-aldatzailea/Moneta-aldatzailea

8.6 Nire lasterbideak

Sartu programatuta dauden zuzeneko sarbideetara. Zuzeneko sarbide berriak programatzeko, hautatu "**Lasterbideak**" funtzio edo direktorio baterako sarbide azkarra sortu nahi izanez gero.

9 Jokoak.....

Zure Alcatel telefonoak jokoak izan ditzake.

9.1 Jokoen ezarpenak

Soinu-efektuei eta bibragailuari buruzko doikuntzak egin daitezke.

10 FM irratia

Zure telefonoak FM irratia du ^[1]. Zure telefonoa irrati arrunt gisa erabil dezakezu, eta kanalak gorde. Pantailan irratsaioari buruzko informazioa ikus daiteke Visual Radio zerbitzua eskaintzen duten kanalak sintonizatuz gero. Beste aplikazio batzuk exekutatzen dituzun bitartean, irratia entzun dezakezu.

^[1] Irratiaren kalitatea zauden eremuan kateak duen estalduraren araberakoa da.

11 Profila



Menu honen bidez, hainbat hitzordu eta ingurutarako doinuak pertsonaliza ditzakezu.

12 Testua idazteko modua

Mezuak idazteko bi idazketa-metodo daude:

- Arrunta: Modu honekin, teklei dagozkien letrak edo karaktere-segidak hautatu behar dituzu testua idazteko. Sakatu teklak behin eta berriz, nahi duzun letra bistaratu arte. Tekla askatzen duzunean, hautatutako karakterea testuan sartzen da.
- Predictivo com modua ZI: Modu honekin azkarrago idatz daiteke testua. \mathbb{Z}_{ABC} eta $\Psi_{\Sigma} \mathbb{9}$ bitarteko tekla bat sakatu hitza idazteko. Tekla gehiago sakatuz hitza luzatzen den neurrian, hitza aldatzen joango da.

Adibidez: "Tomorrow" idazteko, sakatu tekla hauek:

$\mathbb{8}_{TUV}, mno\mathbb{6}, mno\mathbb{6} = Too \rightarrow mno\mathbb{6} \rightarrow tomorrow$

- $\mathbb{0} +$ tekla, editatzeko moduan

Labur sakatuta: hizkuntzen zerrendara sartzen da

Luze sakatuta: zero idazten du.

Alcatel-Lucent-en marka erregistratua
da ALCATEL, eta TCT Mobile Limited-ek
erabiltzen du lizentzia bidez.

Eskubide guztiak, erreserbatuta © Copyright
2010 TCT Mobile Limited.

TCT Mobile Limited-ek eskubidea du bere
ekipoen ezaugarriak aurrez jakinarazi gabe
aldatzeko.

Erabiltzeko oharrak

Telefonoa erabili aurretik, irakurri arretaz kapitulu hau. Fabrikatzailea ez da telefonoa behar bezala ez erabiltzeagatik eta/jedo eskuliburu honetako argibideen arabera ez erabiltzeagatik gerta litezkeen ondorioen erantzule izango.

• **SEGURTASUNA IBILGAILUAN**

Egin berri diren azterketek frogatu dutenez, telefono mugikorra gidatzean erabiltzea arrisku-faktore erreala da, baita esku libreko osagarria (ibilgailuetako kita, esku libreko kit eramangarria...) erabiltzea ere. Hori dela eta, autoa aparkatu arte telefonoa ez erabiltzea aholkatzen zaio gidariari.

Gidatzen ari zaren bitartean, ez erabili telefonoa edo aurikularrak musika edo irratia entzuteko. Aurikularrak erabiltzea arriskutsua izan daiteke, eta debekatuta dago.

Telefonoak erradiazioak igortzen ditu piztuta dagoenean, eta horrek ibilgailuko ekipo elektronikoetan interferentziak sor ditzake, adibidez, gurpilak ez blokeatzeko sistemetan (ABS), segurtasuneko airbagean, etab. Horregatik, neurri hauek hartu behar dituzu:

- ez jarri telefonoa aginte-mahaiaren gainean edo airbaga zabaltzen den eremuan,
- kontsultatu ibilgailuaren fabrikatzailearekin edo kontzesionarioarekin, ibilgailu barruko tresnak telefono mugikorraren irradi-maiztasunaren aurka behar bezala babesturik daudela egiaztatzeko.

• **ERABILTZEKO KONDIZIOAK**

Noizean behin telefonoa itzaltzea aholkatzen dizugu, funtzionamendua optimizatzeko.

Itzali telefonoa hegazkinean.

Ez piztu telefonoa ospitaleetan, horretarako dauden eremuetan izan ezik. Telefono hau edo beste ekipo batzuk erabiltzeak gailu elektriko eta elektronikoen edo irradi-maiztasunak erabiltzen dituzten gailuen funtzionamenduan eragin dezake.

Ez piztu telefonoa gas edo likido sukoietatik hurbil. Arauak errespetatu erregai-biltegietan, gasolina-zerbitzuguneetan, produktu kimikoen fabriketan eta leherketa-arriskua dagoen lekuetan.

Piztuta dagoenean, ez jarri telefonoa inoiz tresna mediko batetik (taupada-markagailua, belarriko protesia, intsulina-ponpa, etab.) 15 cm-ra baino gutxiagora. Bereziki deiei erantzutean, ez ipini telefonoa taupada-markagailua edo belarriko protesia duzun aldeko belarrian, baizik beste aldekoan.

Entzumen-arazorik ez izateko, hartu deia telefonoa belarrira hurbildu aurretik. Esku libreko funtzioa erabiltzean, urrundu telefonoa belarritik, bolumen amplifikatua kaltegarria izan liteke entzumenerako.

Ez utzi hurrei telefonoa edo telefonoaren osagarriak erabiltzen edo horiek in jolasten, zu inguruan ez bazaude.

Karkasa desmuntagarria ordezkatzean, kontuan izan erreakzio alergikoak eragin ditzaketen substantziak eduki ditzakeela produktuak.

Kontu handiz ibili beti telefonoarekin, eta gorde ezazu hautsik gabeko leku garbian.

Ez utzi telefonoa ingurune kaltegarrietan (hezetasuna edo kondentsazioa, euria, likidoak sartzea, hautsa, itsas brisa, etab.). Fabrikatzaileak -10 °C eta +55 °C bitarteko tenperatura gomendatzen du.

55°C-tik gorako tenperatura badago, baliteke pantailan jartzen duena ez irakurtzea, baina hori behin-behineko egoera da eta ez dakar arrisku berezirik.

Telefono-sare batzuetan, larrialdi-zenbaki batzuetara ezin da deitu. Ez izan erabateko konfiantzarik zure telefonoan larrialdi-deiak egiteko.

Ez saiatu telefonoa irekitzen, desmuntatzen edo konpontzen.

Ez dadila telefonoa erori, ez jaurti eta ez saiatu tolestean.

Ez pintatu telefonoa.

Zure telefono-modeloarekin bateragarriak diren bateriak, kargagailuak eta osagarriak bakarrik erabili. Hala egiten ez bada, TCT Mobile Limited-ek eta haren filialek ez dituzte haien gain hartuko gerta daitezkeen kalteak. Ez bota telefonoa udalaren zabor-ontzietara. Ongi irakurri produktu elektronikoak zakarretara nola bota behar diren zehazten duen tokiko araudia.

Gogoratu telefonoan gordetzen duzun informazio garrantzitsu guztiaren segurtasun-kopiak egitea edo idatziz erregistratzea.

Pertsona batzuek epilepsi krisiak jasan ditzakete edo kordea gal dezakete argi distiratsuen ondorioz (adibidez, bideojokoetakoak). Epilepsi krisi horiek edo kordearen galera inoiz jasan ez duenak ere izan dezake. Krisiren bat jasan baduzu edo kordea galdu baduzu, edo zure familian horrelako zerbait gertatu izan bada, galdetu medikuari telefonoan bideojoko horiek erabili aurretik edo telefonoko argi distiratsua aktibatu aurretik.

Gurasoek zaindu behar dituzte haurrak, bideojoko horiek edo argi distiratsua dituzten beste funtzio batzuk erabiltzen dituztenean. Norbaitek sintoma hauetako bat edukiz gero, telefonoa erabiltzeari utzi eta medikuari galdetu behar dio: konbultsioak, begietako edo muskuluetako uzkurdurak, kordearen galera, oharkabeko mugimenduak edo desorientazioa. Sintoma horiek gertatzeko aukerak mugatzeko, hartu neurri hauek:

- nekatuta bazaude edo lo egiteko beharra baduzu, ez jolastu telefono mugikorrarekin eta ez erabili argi distiratsua duten funtzioak,
- orduro gutxienez 15 minutuko atsedena hartu,
- jolastu beti gelako argiak piztuta daudela,
- jolasteko, ipini pantaila begietatik ahalik eta urrunen.
- jolasten ari zaren bitartean, eskuak, eskumuturrak edo besoak nekatu egiten bazaizkizu edo minduta sentitzen badituzu, hartu atsedena hainbat orduz berriro jokatzen hasi aurretik,
- jokatzen ari zaren bitartean edo jokatu ondoren, eskuak, eskumuturrak edo besoak minduta segitzen badute, ez jolastu gehiago eta joan medikuarenera.

Zure telefonoko jokoak erabiltzean, eskuetako, besoetako, sorbaldako, lepoko edo gorputzeko beste atalen bateko giharretako mina eduki dezakezu. Segitu jarraibideei tendinitisa, karpoko tunelaren sindromea edo muskuluetako edo hezurretako beste lesiorik ez izateko:



Musika luzaroan ozen entzunda erabiltzailearen entzumenari kalte egiteko arriskua dago. Doitu zure mugikorraren bolumena arrisku gabe entzuteko. Erabili beti TCT Mobile Limited entzungailuak.

• BIZITZA PRIBATUA ERRESPEATZEA

Telefono mugikorrek argazkiak ateratzeari eta soinua grabatzeari buruz zure herrialdean indarrean dauden lege eta arauak errespetatu egin behar dituzu. Arau eta lege horien arabera, erabat debekaturik dago beste pertsona batzuen edo haien ezaugarri pertsonalen argazkiak egitea eta/edo haien ahotsak grabatzea eta argazki edo grabazio horiek erreproduzitzea edo banatzea, bizitza pribatua urratzen dela ulertzen baita. Erabiltzailearen ardurua da dagokion baimena duela ziurtatzea, beharrezkoa bada, elkarrizketa pribatuak edo konfidentzialak grabatzeko edo beste pertsona bati argazkiak ateratzeko; zure mugikorraren fabrikatzaileak, banatzaileak edo saltzaileak (eta operadoreak) ez dute izango telefonoa behar ez bezala erabiltzeko eragindako ondorioen ardurarik.

• BATERIA

Bateria kendu aurretik, ziurtatu telefonoa itzalita dagoela.

Bateria erabiltzean, ohar hauek eduki behar dira kontuan:

- Ez ireki bateria (substantzia kimikoak jariatzeko eta erretzeko arriskua dago).
- Ez egin zulorik, ez desmuntatu, ez eragin zirkuitulaburrik.
- Ez bota sutara, ezta zaborretara ere, ez eduki 60°C-tik gorako tenperaturetan.

Bateria bota nahi baduzu, ziurtatu ingurumena babesteari buruz indarrean dauden legeen arabera berreskuratuko dela. Ez erabili bateria sortu zen helbururako ez den beste erabilera baterako. Ez erabili inoiz hondatutako bateriarik edo TCT Mobile Limited-ek eta/edo haren filialek aholkatu gabekorik.



Zure telefonoak, bateriak edo osagarriek ikur hau badute, gune hauetako batera eramán behar dituzu gehiago erabil ezin ditzakezunean:

- Ekipo-mota horientzako edukiontzi bereziak dituzten udal-hondakinak deuseztatzeko zentroetara.
- Saltokietako edukiontzietara.

Produktuak birziklatu egin behar dira, ingurumenean substantziarik ez zabaltzeko, eta haren osagaiak, berrerabili.

Europako Batasuneko herrialdeetan:

doan da bilketa-puntuetara sartzea, eta ikur hori duten produktu guztiak toki horietan utzi behar dira.

Europako Batasuneko kide ez diren herrialdeetan:

herrialde edo eskualde horretan biltzeko eta birziklatzeko aukera badago, produktu horiek ez dira bota behar zakarrontzi arruntetara. Bilketa-puntuetara eramán behar dira, birziklatzera.

ERNE/ BESTE MODELO BATEN BATERIA JARRIZ GERO, LEHERTZEKO ARRISKUA DAGO. ERABILITAKO BATERIAK BOTATZEKO, SEGI EMANDAKO JARRAIBIDEEI.

• KARGAGAILUAK

Saretik elikatzen diren kargagailuek 0 °C eta 40 °C bitartean funtzionatzen dute. Zure telefonoaren kargagailuak informazio-tratamendurako eta bulegoko segurtasun-arauak betetzen ditu, eta erabilera horretarako bakarrik diseinatuta dago.

• UHIN ELEKTROMAGNETIKOAK

Telefono mugikorren modelo guztiak nazioarteko eskakizunekin (ICNIRP) edo Europako 1999/5/EE (R&TTE) direktibarekin bat etorri behar dute, eta hori, gainera, merkatuan sartu aurretik bete beharreko baldintza da. Osasuna eta segurtasun publikoa babestea –batez ere telefono mugikorren erabiltzaileena– eskakizun edo direktiba horien funtsezko betebeharra da.

IRRATI-UHINEI BURUZKO NAZIOARTEKO ETA EUROPAKO ESKAKIZUNAK BETETZEN DITU TELEFONO MUGIKOR HONEK.

Zure telefono mugikorra irrati-uhinen igorlea eta hartzailea da. Nazioarteko eskakizunek (ICNIRP) ⁽¹⁾ eta Europako Batasuneko Kontseiluak (1999/519/EE gomendioa) ⁽²⁾ gomendatutako irrati-maiztasunen (IM) mugak errespetatuz diseinatuta eta fabrikatuta dago.

Muga horiek eskakizun-multzoa osatzen dute, eta publikoarentzat baimendutako irrati-maiztasunaren mailak zehazten dituzte. Adu independenteek ezarri dituzte, ebaluazio zientifiko erregulatu eta zehatzetan oinarrituz.

Segurtasun-tarte handia hartzen duten kontuan, guztion segurtasuna bermatzeko, edozein dela ere gure adina edo osasun-egoera.

Telefono mugikorren arauak "SAR" (Specific Absorption Rate = Absortzio Espezifikokoaren Tasa) izeneko neurri-unitatea definitzen du. Europako Batasuneko Kontseiluak SAR tasarentzat gomendatutako muga 2 W/kg da, giza ehunaren 10 gramoko batez beste. Probak potentzia-mailarik altuena igorri egin dira, maiztasun-banda guztietan eta funtzionamendu estandarreko posizioetan.

SAR tasa potentzia-mailarik altuenean ebaluatzen den arren, telefono mugikorraren SAR tasa erreala, normalean, probetan lortutako gehienezko balioen azpitik dago. Beraz, telefono mugikor hau sarerako konexioa ziurtatzeko beharrezkoa den potentzian soilik erabiltzeko diseinatuta dago. Oro har, oinarri-estazioko antenatik zenbat eta hurbilago egon, orduan eta potentzia-maila baxuagoa izango du telefono mugikorrak.

⁽¹⁾ ICNIRP eskakizunak herrialde hauetan aplikatzen dira: Erdialdeko Amerika (Mexiko izan ezik), Hego Amerika, Iparraldeko eta Hegoaldeko Afrika, Asia-Pazifikoa (Korea izan ezik), Australia.

⁽²⁾ Europako gomendioa (1999/519/EE) herrialde hauetan aplikatzen da: Europa, Israel.

Telefono mugikor modelo honen SAR tasaren gehieneko balioa belarriaren ondorako eta arauaren arabera 0,95 W/kg da. Nahiz eta SAR mailak telefono batetik bestera edo erabiltzeko modu batetik bestera aldatu, maila guztiek irradi-maiztasunei buruz indarrean dauden nazioarteko eskakizunak eta Europako gomendioa betetzen dituzte.

Munduko Osasun Erakundearen (MOE) iritzi, "egungo zientzia-jakintzak ez du justifikatzen telefono mugikorrek erabiltzeko neurri bereziak hartzea. Kezka izanez gero, bakoitzak erabaki dezake norberak edo bere seme-alabek irradi-maiztasunen eraginpean denbora gutxiago egotea, komunikazioen iraupena murriztuz edo esku libreko aukera erabiliz. Hala, telefonoa burutik eta gorputzetik urrunago dago" (Memo 193. zk). MOEk eremu elektromagnetikoei eta osasun publikoari buruz duen informazio osagarria Interneteko helbide honetan aurkituko duzu: <http://www.who.int/peh-emf>.

Telefono mugikorra erabiltzeak kalteak sor ditzakeela frogatu ez den arren, Munduko Osasun Erakundeak gomendatzen du sare-estalduraren maila ona den kasuetan erabiltzea telefonoa, telefonoaren pantailan ageri den moduan (4 edo 5 marratxo). Horrez gain, gomendatzen da, telefono bidezko komunikazioetan, telefonoa urrun edukitzea haurdun dauden emakumeen saeletik eta nerabeen sabelaren behealdetik.

Zure telefonoak barneko antena bat du. Komunikazioetan funtzionamendu-kalitate onena izateko, ez ukitu edo hondatu.

Gailu mugikorrek funtzio ugari dituztenez, belarriaren ondoan erabiltzeaz gain, beste posizio batzuetan ere erabil daiteke. Telefonoa entzungailuekin edo USB datu-kable batekin erabiltzen denean, dagozkion direktibak bete behar ditu. Beste osagarriren bat erabiltzen ari bazara, ziurtatu erabiltzen ari zaren produktuak ez duela metalik eta telefonoa gorputzetik gutxienez 2 cm-ra dagoela.

• LIZENTZIAK

 eZiText™
Zi corporation

Zi Corporation-en eta/edo haren filialen marka komertzialak dira eZiText® eta Zi®.

Informazio orokorra

- **Interneteko helbidea:** www.alcatel-mobilephones.com
- **Bezeroarentzako arreta-zerbitzuaren zenbakia:** ikus "TCT Mobile Services" liburuxka edo Interneteko gure gunea.

Interneteko gure gunean, on line kontsultatu ahal izango duzu ohiko galderen foroa (FAQ), edo zuzenean gurekin harremanetan jarri ahal izango duzu posta elektronikoz galderak egiteko.

Erabiltzailearen eskuliburu honen ingeleseko edo beste hizkuntza batzuetako bertsioak Interneteko gure helbidean deskarga ditzakezu:

www.alcatel-mobilephones.com

Zure telefonoa telefono-deiak egin eta jasotzeko diseinatutako gailua da. GSM sareetan funtzionatzen du, 900 eta 1800 MHz bandetan.

CE | 588

Honen bidez, TCT Mobile Limitedek adierazten du Alcatel OT-223 telefono mugikorrek 1999/05/EE direktibako oinarritzko baldintzak eta aplikatu edo eskatu beharreko gainerako xedapenak betetzen dituztela.

Lapurretaren aurkako babesa ⁽¹⁾

Zure telefonoa IMEI zenbakiarekin (serie-zenbakia) identifikatuta dago; paketearen etiketan eta telefonoaren memorian dago zenbaki hori. Lehen aldiz erabiltzen duzunean, komeni da zenbaki hori idaztea (#06# teklak sakatuta) eta leku seguruan gordetzea; izan ere, Poliziak edo operadoreak eska diezazuke telefonoa lapurtuz gero. Telefonoa lapurtzen badizute, zenbaki horrekin telefonoaren funtzionamendua blokeatu ahal izango duzu, eta beste inork ezingo du erabili, ezta SIM txartel berria jarrita ere.

Erantzukizunik eza

Litekeena da desberdintasunak egotea gidaliburu honen eta telefonoaren benetako funtzionamenduaren artean, telefonoaren softwarearen bertsioaren arabera edo operadore bakoitzaren zerbitzu espezifikoaren arabera.

⁽¹⁾ Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

Telefonoaren bermea

Zure telefonoa bermatuta dago bi (2) urterako ⁽¹⁾, jatorrizko fakturan ageri den erosketa-datatik zenbatzen hasita, erabilera normalean agertzen den akats ororen aurka. Behar bezala beteta aurkeztu behar da faktura hori, garbi adieraziz: izena, modeloa, Imei-a, data eta saltzailea.

Erabilera normala eragozten dion akatsen bat baldin badu telefonoak, berehala eman behar diozu horren berri zure saltzaileari, eta, jatorrizko fakturarekin batera, telefonoa eraman.

Akatsen bat duela egiaztatzen bada, telefonoa (edo haren piezaren bat) konpondu egingo da aldatu egingo zaizu, zer komeni den. Hiru (3) hilabeteko bermea dute konpondutako telefonoek eta haien pieza osagarriek akats horren aurka. Antzeko funtzionaltasuna eskaintzen duten pieza berregokituekin egin daiteke konponketa edo telefono-aldaketa.

Piezen eta eskulanaren kostua sartzen da berme honetan, baina ez beste inolako kosturik.

Berme honek ez ditu estaltzen telefonoak etajedo pieza osagarriek arrazoi hauengatik dituzten akatsak:

⁽¹⁾ Erabilera eta sarearen konfigurazioaren araberakoa izango da telefono mugikorraren bateriaren iraupena hitz egiteko denborari, jarduerarik gabeko denborari eta bizitza erabilgarri osoari dagokienez. Bateriak hornigai suntsigarritzat jotzen direnez, zehaztasunek diote telefonoa erosi ondorengo lehen sei (6) hilabeteetan eta 200 kargatzeetan (gutxi asko) izango du errendimendurik onena zure telefonoak.

- 1) Telefonoa erabiltzen den eremu geografikoan aplikatzen diren erabilera- edo instalazio aginduak edo segurtasun-arauak eta teknikoak ez betetzeagatik.
- 2) TCT Mobile Limited-ek emandakoa edo gomendatutakoa ez den ekipo batera konektatzeagatik.
- 3) Konponketak edo aldaketak TCT Mobile Limited-ek edo haren filialek edo baimendutako mantentze-zentroak baimendu gabeko herritar partikularrek egin badituzte.
- 4) Eguraldi txarragatik, ekaitz elektrikoengatik, suteengatik, hezetasunagatik; likido, jaki edo produktu kimikoren bat sartzeagatik, artxiboak deskargatzeagatik, kolpeak emateagatik, goi-tentsioagatik, korrosioagatik, oxidazioagatik eta abarregatik.

Ez dugu telefonoa konponduko etiketak edo serie-zenbakiak (IMEI) kenduta badaude.

Berme honek ez die eragiten kontsumitzaileak 2003ko uztailaren 10eko 23/2003 legearen arabera dituen eskubideei.

Inondik ere ez dira izango TCT Mobile Limited edo haren filialak inolako ustekabeko kalteren edo ondorioren erantzule (besteak beste, eragiketen edo jarduera komertzialaren etenarena), baldin eta legeak kalte horien gaineko erantzukizunik egotzen ez badigu.


Herrialde edo estatu batzuek ez dute uzten ustekabeko kalteak edo ondorioak salbuesten edo murrizten, ezta berme inplizituen iraupena mugatzen ere; beraz, litekeena da aipatutako murrizketak edo salbuespenak zuri ez aplikatzea.

Zure telefonoaren legezko bermearen aplikazioari buruzko erreklamazioen bat egin nahi izanez gero, 2007/11/16 Legeak agintzen duenari jarraiki, ipini gurekin harremanetan bezeroaren arretarako telefonoaren bidez (902 113 119) edo helbide honetara idatziz:

TCT Mobile Europe SAS
Immeuble Le Capitole
Parc des Fontaines
55, avenue des Champs Pierreux
92000 Nanterre
France


Arazoak eta irtenbideak

Laguntza teknikoko zerbitzuarekin harremanetan jarri aurretik, gomendio hauei begiratzea gomendatzen dizugu:

- Telefonoak behar bezala funtziona dezan, telefonoa noizean behin itzaltzea gomendatzen dizugu.
- Bateria optimizatzeko, erabat kargatzea gomendatzen dizugu ().
- Telefonoak hobeto funtziona dezan, telefonoaren memorian datu gehiegi ez gordetzea gomendatzen dizugu.

Gainera, puntu hauek egiaztatzea komeni da:

Telefono mugikorra ez da pizten

- Sakatu  tekla pantaila piztu arte
- Egiaztatu bateriaren karga
- Egiaztatu bateriaren kontaktuak, atera eta sartu berriz bateria, eta piztu berriz telefonoa

Telefonoa desaktibatuta geratu da duela zenbait minutu

- Sakatu  tekla.
- Kendu bateria, eta gero, sartu berriz eta piztu telefonoa

Pantaila ez da argi ikusten

- Garbitu pantaila
- Erabili telefono mugikorra gomendatutako erabilera-kondizioetan

Mugikorra bakarrik itzaltzen da

- Egiaztatu telefonoa erabiltzen ez duzunean teklatura blokeatuta dagoela
- Egiaztatu bateriaren karga

Mugikorak autonomia oso laburra du

- Egiaztatu telefonoari erabat kargatzen utzi diozula (3 ordu gutxienez)
- Karga partzial baten ondoren, baliteke karga-maila behar bezala ez adieraztea. Kargagailua deskonektatu eta gero, itxaron 20 minutu karga-maila zehatza jakiteko.

Mugikorra ez da behar bezala kargatzen

- Egiaztatu bateria ez dagoela erabat deskargatuta, kargaren irudiak hainbat minutu behar ditu eta gero txistu fin bat egin dezake
- Egiaztatu kondizio normaletan kargatzen dela (0 °C + 40 °C bitartean)
- Egiaztatu nola sartzen den bateria: bateria kargagailua konektatu baino lehen sartu behar da
- Ziurtatu kaxan datozen Alcatelen bateria eta kargagailua erabiltzen ari zarela
- Atzerrian, egiaztatu korrante-hartuneen bateragarritasuna


Telefono mugikorra ez dago sare batera konektatuta

- Begiratu telefono mugikorak beste sareren bat aurkitzen duen beste toki batean
- Egiaztatu sarearen estaldura operadorearekin
- Egiaztatu SIM txartelaren baliozkotasuna operadorearekin
- Saiatu eskuz hautatzen sare erabilgarria(k)
- Saiatu berriz, gero, sareak gainkarga baldin badu

SIM txartelaren errorea

- Egiaztatu SIM txartela behar bezala sartuta dagoela.
- Galdetu operadoreari zure SIM txartela bateragarria den 3 V edo 1,8 V-ekin, lehengo 5 V-eko SIM txartelak ezin baitaitezke erabili.
- Ikusi SIM txartelaren txipa hondatuta edo marratuta dagoen

Ezin da deirik egin

- Egiaztatu markatu nahi duzun zenbakia markatu duzula eta sakatu  tekla.
- Nazioarteko deientzat, egiaztatu herrialdeko/eremuko kodeak
- Egiaztatu telefonoa sare batera konektatuta dagoela, eta sareak gainkargarik ez duela edo erabilgarri dagoela
- Egiaztatu abonua operadorearekin (kreditua, SIM txartelaren baliozkotasuna eta abar)
- Egiaztatu ez dituzula irteerako deiak debekatu

Ezin da deirik jaso

- Egiaztatu telefonoa piztuta eta sare batera konektatuta dagoela (eta sareak gainkargarik ez duela edo erabilgarri dagoela)
- Egiaztatu abonua operadorearekin (kreditua, SIM txartelaren baliozkotasuna eta abar)
- Egiaztatu ez dituzula sarrerako deiak desbideratu
- Egiaztatu ez dituzula dei jakin batzuk debekatu

Solaskidearen izena ez da azaltzen deia jasotzean

- Egiaztatu operadorearen zerbitzu horretara harpidetuta zaudela
- Solaskideak ez du bere zenbakia transmititzen

Deien audio-kalitatea ez da onena

- Dei bat egitean, bolumena  teklaren bidez doi dezakezu.
- Egiaztatu sarearen potentzia 

Ezin ditut eskuliburuan azaltzen diren funtzioak erabili

- Egiaztatu badagokizula zerbitzu hori operadoreari ordaintzen diozunaren arabera
- Egiaztatu funtzio horrek ez duela Alcatelen osagarriren bat behar

Ezin dut agendako zenbakirik markatu

- Egiaztatu erregistroaren zenbakia ongi gorde duzula
- Egiaztatu, atzerrira deitzen baduzu, herrialdearen aurrezenbakia hautatu duzula

Ezin dut erregistrorik sortu nire agendan

- Egiaztatu SIM txartelaren agenda ez dagoela beteta, kendu fitxak edo gorde fitxak telefonoaren agendetan (profesionala, pertsonala).

Solaskideek ezin dute mezurik utzi nire ahots-postontzian

- Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

Ezin naiz ahots-postontzira sartu

- Egiaztatu zure operadorearen ahots-postontziaren zenbakia **“Nire zenbakiak”** atalean gordeta dagoela
- Saiatu berriz gero, sarea okupatuta badago

ikonoa hasierako pantailan agertzen da

- Mezu gehiegi gorde dituzu SIM txartelaren memorian: kendu zenbait edo gorde itzazu telefonoaren memorian

“Zerbitzurik gabe” mezua bistaritzen da

- Sarearen estaldura-eremutik kanpo zaude

Okerreko 3 PIN kode sartu ditut

- Jarri harremanetan operadorearekin desblokeatzeko PUK kodea lortzeko

Nire mugikorra izoztuta dago, ezin dut piztu

- Begiratu bateria kaltetuta edo erabat agortuta dagoen.
- Oraindik funtzionatzen ez badu, kendu bateria eta SIM txartela, eta jarri berriro. Ondoren, piztu berriro.
- Luze sakatu # tekla, eta sakatu pizteko/jizaltzeko botoia, telefonoa berrabiarazteko



2008ko Kudeaketaren Kalitatearen
Urrezko Q saria



Q Oro Premio a la Calidad de
Gestión 2008